

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA SAILA

5326

247/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.

Irailaren 28ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskura pasatu ziren Estatuaren Administrazio Orokorraren zerbitzu batzuk. Bada, halako zerbitzuak emendatzearen gainean, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuko bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Batzorde Mistoak erabakiak hartu zituen, zehazki, Estatuaren titularitatepeko artxiboak kudeatzeari eta jabetza intelektualari buruzko legeria betearaztearen arlokoak, zeintzu Batzorde Mistoak, 2011ko ekainaren 22an egindako osoko bilkuran, hartu baitzituen; eta, bestalde, ekainaren 24ko 896/2011 eta 897/2011 Dekretuen bidez onartu ziren, eta EAEn, berriz, ekainaren 28ko 141/2011 eta 142/2011 Dekretuen bidez. Bada, erabakion bitartez, hedatu egin ziren –halako arloetan– EAEk Estatuaren Administrazio Orokoretik hartuta dituen funtzioak eta zerbitzuak, erabakiotan bertan zehazten den legez.

Ondorioz, aldatu egin behar da Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretua, hain justu ere Euskal Autonomia Erkidegoak jasotako funtzio berrien ostean, funtzioak eta jarduketa-arloak egokitzeko.

Horri jarraikiz, Kulturako sailburuaren proposamenaz, eta 2012ko azaroaren 21ean egindako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretuaren 9. artikuluko 1. paragrafoaren a) idatzi-zatiak honako idazketa izango du:

«a) Historia eta Arte Ondarearen kudeaketa eta zainketa; museoak, liburutegiak, artxibategiak eta jabetza intelektualak.»

Bigarren artikulua.– Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretuaren 10. artikuluko 2. paragrafoaren c) idatzi-zatiak honako idazketa izango du:

«c) Irargi, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Probintzietako Arxibo Historikoak.»

Hirugarren artikulua.– Bere funtzioak gauzatzeko, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren antolaketaren barruko zerbitzuen zerrendari honako idatzi-zatia gehitzen zaio: Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretuaren 10. artikuluko 2. paragrafoko e) idatzi-zatia, alegia.

«e) Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa.»

Laugarren artikulua.– Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretuaren 10. artikuluko 2. paragrafoaren 2.3 azpiparagrafoaren lehen zatiak honako idazketa izanen du:

«2.3.– Irargi, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Probintzietako Artxibo Historikoei dagokie.»

Bosgarren artikulua.– Irargi, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroari dagozkion funtzioen zerrendari honakoa hau gehitzen zaio: Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretuaren 10 (Kultura Ondarearen Zuzendaritza) artikuluko 2. paragrafoaren 2.3 azpiparagrafoko h) idatzi-zatia, honako idazketarekin:

«h) Estatuaren Administrazioarekin sinatutako itunek xedatzen dutenarekin bat etorriaz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Probintzietako Artxibo Historikoen kudeaketa.»

Seigarren artikulua.– Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretuaren 10. artikuluko 2. paragrafoko 2.4 azpiparagrafoaren b) idatzi-zatia kendu egiten da.

Zazpigarren artikulua.– Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 45/2001 Dekretuaren 10. artikuluko 2. paragrafoari 2.5 azpiparagrafoa gehitzen zaio, honako idazketa izanen duena:

«2.5.– Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoari dagokio:

a) Oharrak eta inskripzioak egiteko eskabideak izapidetu eta ebaztea, eta bai –egoki bada– inskripzioen indargabetzea eta gauzatzea ere.

b) Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatutako eskubide, egintza eta kontratuei buruzko ziurtapenak eta gainontzeko publikotasun erak.

c) Euren eskumenen arloan, txosten teknikoak ematea.

d) Gordailatutako dokumentuak eta materialak zaindu eta artxibatzea.

e) Oro har, Jabetza Intelektualaren Erregistroa kudeatzeko beharrezko diren jarduketak, eta bai indarren den ordenamendu juridikoak esleitzen dizkionak ere.

f) Beherago zehaztutako erakunde edo erakunde-elkarteak baimentzea eta horien baimenak ezeztatzea: euren kontura edo inoren kontura, ustiatze-eskubideak edo ondarearen arloko beste batzuk kudeatzen dituztenak, betiere jabetza intelektualaren eskubideen autore batzuen edo beste titular batzuen kontura eta interesen alde.

g) Aipatu kudeaketa-erakundeen estatutuak eta horien aldaketak onartzea.

h) Ardura hartzera honako honetaz: kudeaketa-erakundeek, indarreango araudian ezarritako obligazio eta betekizunak betetzeaz.

i) Kudeaketa-erakundearen jarduera kontrolatzea, eta, hala badagokio, ordezkartza edo kudeaketa egiten duten erakundeena.

j) Bitartekaritza eta arbitrajea, Estatuko Administrazio Orokorraren ahalmenei kalterik egin gabe.

k) Kultura Ondarearen Zuzendaritzarentzako aholkularitza juridikoa gauzatzea, bere eskumenpeko arloetan.»

2012ko abenduaren 3a, astelehena

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 21a.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.